Foxe Tabulam
Londoira

Egilea: Imanol Esnaola

Lezoko Udalaren laguntzaz egina

L.G.: SS-858/96

Marrazkiak: Gentzane

Gidoia: Imanol



Irakurle maite hori:

Lezo kostako herria izanik itsasoa izan du bizibide eta itsasoarekin lotutako iharduerak arrout sustraiturik egon izan dira gure herrian. Hamaika arrantzale, baleazale, itsaslapur, kortsario eta itsasgizon jaio eta bizi izan da Lezon.

Itsasoa ez da inoiz bizibide erraza izan, garai haiek ere, ordea, ez ziren gozoak inorentzat eta itsasoa aberastasun iturri oparoa zen. Hori zela eta, Lezoarrek itsasora jotzen zuten arrantza, merkataritza, nahiz euskal kostaldea gertu samarretik nabigatzen zuten atzerriko itsasuntzietako altxorren bila. Eskrupulu merkeak alde batera utziaz atzo arrantzale zena bihar itsas lapur ausart bihurturik, aberatsenen untziak erasotuz bizitzen jarraitzeko behar zuten eskuratzen zuten. Bazekiten pirateriaren ordaina heriotza izan zitekeela, ez zen hobea, ordea, Ternuako itsaso izoztuetan etor zitekeen heriotza...

Lezon horrelako gizonak ez ziren bat, bi edota hiru izan, hamaika baizik. Gaur egun horrelako gutxi batzuren izena besterik ez dugu ezagutzen. Juanot Zabala eta honen semea Joxe horietakoak izan ziren eta kaira begira dagoen Zabarre etxean bizi izan ziren, hortik datorkio "Zabarre" izena etxeari.

Zabarretarrei buruz ez dakigu gauza handirik, baina badirudi itsasoak ematen zuenetik bizi zirela. Eta, jakina, ematen ez zuenean hartu egin behar. Hori dela eta, ez dirudi orduko agintariekin oso harreman ona zutenik eta horrek eragin zuen besteak beste Joxe Zabalaren sendi osoa heriotzera zigortua izatea.

Ondorengo istorioan kontatzen dena guk asmatua da neurri handi batean. Guk Joxe Zabalaren bizitza, XVIII eta XVIII. mendeak, irudikatu izan nahi dugu eta horri bidez gure agurrik beroena eskaini kanpoko agintearen esanetara makurtu eta makurtzen ez diren Herri honen seme-alaba guztiei.

Zabarre Gazte Taldea



Eta esaera zaharrak dion moduan"OGI GOGORRARI, HAGINA ZORROTZ". Juanot Zabalak bazekien arrantzarik ez zegoenean nora jo aberastasun bila. Sarritan erasotu zituen ondasunez beterik zebiltzan jauntxoen itsasuntziak.



Kantauri itsasoan zebiltzan kapitain arrotzek ongi ezagutzen zuten Zabarreren zortziburua.
Oh! My God! Hemen dira berriro euskaldun alu horiek! Goazen hemendik! Hurry up!
Zabarretarrak ez ziren piraterian soilik jarduten. Balea harrapatzen ere aritzen ziren. Hau, ordea, lan gogorra eta arriskutsuegia zen.
Eup! Allande, atxeman al dugu balerik parraldeko itsaso zakar orretan?
Eupa, Juanot! tabernan tragoxka bat hartuz erranen dizut guzia, goazen!
Ser ju presenta for mi?
Cavinit trucka for mi.
Juanot, itsasgizon trebea izaki ezaguna eta estimatua zen Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdiko mariñelen artean.
Eta baita Ternuako itsas bazter izoztuetako herrietan ere.



Eta harrika eman zieten Zabarre eta bere lagunei.

Eta halaxe, bi gazte hauen arteko harremana sortzez gaiztotua zen; badakizue, sua eta ura ezin ezkon daitezke...



Eta halaxe, Zabarre gaztea mariñel lanetan gogor saiatu zen. Amets bat zuen buruan...



Bere ametsa egia bihurtu zen egun batean eta Zabarrek izan zuen bere itsasuntzia, aitarena bezala hau ere Beltza izenez bataiatu zuen.


Eta halaxe Zabarrek, aitaren eta orduko euskal itsasgizonen bideari ekin zion... balea arrantzan eta hoberik ez zenean... piraterian. Zergen diruaz leporaino beterik zihoazen itsasuntziak zituen gogoko...
SU!!!
DANBA!
DANBA

Zabarre eta gainerako marinelek
neke handiz irabazitako etxera
ekartzen zuten; norentzat, ordea?
Erregearen zergak ordaindu
eta ixo espetxera joan
nahi ez baduzue
Ez, mesedez Jauna, ez kendu
ardiyak, ez dugu besteik.
Zerekin bizi biar dugu?
Eskerrak gu hemen
gauden, bestela nork
zaindu erregearen
indarra bazter hauetan?
Ondo esana! Eta horrela jarrai
beza urte luzez
Españako Felipe eta
gu guztion mesederako, topa!


Perutxo Lazon eta Españako erregearen hemengo morroiak ez zeuden lasai ordea. Zerbait egin behar zuten.
Zabarre alu orrek berriz ee beria in digu!
"D. Phelipe por la gracia de Dios Rey de las Españas. Al concexo y Alcaldes, Rexidores e Oficiales, e Justizia de la villa de Fuenterrabia, salud e gracia. Sepades que por quanto el conoscido malfechor Joseph de Zabala hase negado a aceptar e reconoscer mi Real authoridad, mando e ordeno que dicho Joseph, vulgo Zabarre, sea castigado junto con sus deudos e soccios a pena de muerte, mediante emparedamiento, como es de uso e costumbre en estos mis Reinos con qualesquier homes que fizieren pirateria en la mar Oceana"
Erregeren agindua ezin izan zitekeen mendekati eta makurragoa...
Lasai egon bedi, jauna, hemen dut erregeren gutuna eta bertan esaten digu zer egin.
Ez dezagun gehiago itxaron eta akaba dezagun zorritsu horiekin, erro-errotik; ez dadila Zabarretarrik gehiago sor!


Beltza Bordalabordan loturik, etxerako bidean da Zabarre. Zer gertatzen da, ordea? Zergatik ez dago zortziburua etxeko balkoian? Zergatik ez dira ageri senide eta lagunak?
Korrika batean Zabarre etxeko atariraino iritsi da eta Perutxo Lazonen bandoa irakurri du larriturik.
"Ausi castiga Su Magestad Catolica a los subditos que violando las sacras leies de la patria fazen males e daños e saqueos e muertes en sus Reynos de España y probinzias de Ultramar, e a sus deudos, e a quantos fazen aiuntamiento con ellos. Que Iesu Christo nuestro señor nos libre de la horrible lacra que infesta nuestros mares.
Perucho de Lazon, Alcalde de la Mui Noble Mui Leal Valerossa e Mui Siempre Fiel ziudad de Fuenterrabia, e Comisario de Su Magestad el Rei de España"
Amorruz beterik paper zatia atetik kendu orduko ohartu da Lazondarren gudariak atzean dituela, bera ere hiltzeko asmo sendoz datoz. Zabarrek badaki hori eta ihesari eman dio.

Txalupa harturik, arraunean bizi-bizi, Bordalabordara joan da. Hantxe du Beltza untzia eta bere eskifaia osoa. Ihes egiteko duen aukera bakarra...
tsasoz ihes egin nahian dabil. Goazen gu ere untzietara, jarrai gakizkion atzetik!


Lehen kainoikadak Pasaian bertan izan ziren. Zabarrek bazekien alferrik zela armada osari aurre egitea...
Goazen hemendik!
Eta horrela, Beltza arinagoa izaki, ihesi joan zen españar armadako untziak atzean utzita.



Eta geroztik, kaia
lainotzen den gauetan,
Zabarreren Beltza
untzia Lezora
inguratzen dela esan
izan dute gure
zaharrek.
Zuk inoiz ikusi al
duzu?

Zabarr
Eta geroetik Santakruzen hasieran
Zabarrik itzultzen da lezera
Herriko gazteek angi etorri
beraz egiten dute, eta berarekin
igerotzen
dituzte
jaiak

Eta santakruzeak bukatzean
herriko gazteek ilgur egiten dute burrunga
ateratze?
Zaborrera

Zabarre

1

Lezo ttiki politta
itsas bazterrian,
arrantzale piratak
bazien aldian,
erdararikan etzen
lezoar itxian,
Zabarre Lezoarra
bizirik zenian.

2

Eta zuk herriz gazte
arreta jartzazu,
Zabarre nor izan zen
jakin behar duzu,
herri hontako seme
trebe ta adoretsu,
batzutan arrantzale
itsas-lapur usu.

3

Lañua egon arren
ekaitza haserre,
gogotsu saiatzen zen
lanian Zabarre,
herritarren gosia
asetu beharrez,
gaur sardiña ta bihar
zaku bete urre.

4

Ahularen lagun ta
ahaltsuen etsai,
Zabarrek herri hontan
etzun Jauntxorik nahi,
herriaren lepotik
bizitzen zirenai,
zutena kentzen zien
pozik eta lasai.

5

Garesti pagatu zun
bere ausardia,
Jauntxoek hil baitzuten
haren familia,
guraso, emazte ta
etxeko semia,
horixe bai kasta